


Ura eta Ozkaritz

OZKARITZ

- Iturriak
- Ibaiak, errekek
- Uharkak, putzuak
- Latsagiak
- Errotak
- Askak
- Erlazionatutako toponimia
- Ur-horniketa
- Elkarrizketak



Julian Lizarragak 2024an egindako iturria

ITURRIAK

Ozkaritzen, herritik oso gertu, bi iturri daude: bat beheko aldean, Isiturria, eta bestea goiko aldean, Janarizko bidean. Beste bat ere badago, ibai ondoan: Legarburuko iturria. Eta baita baratzeetakoa ere.

IBAIAK, ERREKAK

Dermioa Erro ibaiak zeharkatzen du, eta erreka bat ere badago, *Pineral* (pinadiko erreka), herriaren beheko aldetik doana.

UHARKAK eta PUTZUAK

Herrian ia etxe guztiek dute putzu. Badira erabili ezin direnak eta badira oraindik ere baliatzen direnak.

LATSAGIAK

Dirudienez, ez da latsagirik izan. Lixiba egitera errekarara joaten ziren. Bada etxe bat latsarria duena, baina geroagokoa.

ERROTAK

Hurbilean zegoen Erredingo errota, Lizoainekin partekatua. Inguruetan badira aurriak. Ondoko alor batek *presa* du izena.

ASKAK

Gaur egun ez dago askarik ez mendian ezta herrian ere.

ERLAZIONATUTAKO TOPONIMIA

Isiturri

Presa

Pineral erreka

UR-HORNIKETA

Baratzeetako iturritik ura herritik 650 metro ingurura ekarri arte, herritik gertu zeuden bi iturriak erabiltzen ziren: Isiturria eta Janarizko bidekoa.

Bietatik garraiatzen zen ura. *Pineral*, pinadiko erreka, lixiba egiteko ere baliatzen zen.

Ura ekarri zen lehen aldian, baratzeetako iturritik herriko biltegi txiki batera ekarri zen, bere kabuz, eta biltegi horretatik ponpatzen zen txikiago batera, 2.000 litro inguruko batera, goitiko etxeei zerbitzu emateko.

80-90eko hamarkadetan, horniketan hobekuntza dezente egin ziren. Alde batetik, 100.000 litroko biltegi bat egin zen herriko gorenean. Iturburuko hartunea ere franko hobetu zen, hartune zaharra osatuz 20 eta 50 metrora zeuden bi putzu

berrirekin. Biltegi berri bat egin zen herrian eta, bertatik, eraiki berria zenera ura ponpatzen zen.

Hori hala izan da Urrozko Argonga menditik urak ekarri diren arte, 2014an, "Mendinueta Soluzioa" izenekoaren bidez. Soluzio horrek ura Itoizko ubidetik hartzen du eta bere kabuz iristen da Ozkarizko biltegiraino.

LIZOAINIBAR-ARRIASGOITIKO MEMORIAREN BILKETAKO ELKARRIZKETAK:

OZKARITZ (Miguel Berasain)

Txorrotako ura ekarri aurretik, etxeetara ura baldeka ekarri behar izaten zen herritik hurbilen zeuden iturrietatik. 1936an iritsi zen lehen aldiz argindarra Ozkaritzera, iturburuko urak sortua (iturburua ez baitzen inoiz ere lehortzen). Hala, Ozkaritz izan zen irratia izan zuen lehen herria, ingurukoen artean.

Iturriko urarekin, egunean zehar biltegi batzuk betetzen ziren, eta gauez, zirga bati tiraka, konporta bat altxatzen zen. Hala, ura behean zegoen turbina batera erortzen zen eta argindarra sortzen zen. Sistema horrek 1949. urtera arte iraun zuen, orduan ekarri baitzen elektrizitatea ibar guztira.

Ur-horniketa Ozkaritzera 1957. urtearen inguruan orotsi zen. Ura iturburutik ekartzen zen.

LIXIBA

Iturriaren ondoan zegoen latsagia, estali gabea. Bazituen zenbait latsarri, sasiz inguratuak, aire-korronteak saihesteko. Emakumeek bertan lixiba egiten zuten, belauniko. Udan, lixiba handia egin behar izaten zenean, iturburuetako ura ez zen aski izaten, eta ibaira jaisten zuten lixiba, zamarietan.